

IRITZIA

Espazio publikoa eta memoria?



Hedoi Etxarte
Katakarak liburu-dendako
langile kooperatibista

Bidaltze data: 2019-04-03
Onartze data: 2019-05-04

+++++

Gizakiaren askapenaren alde dagoenarentzat, planetako %99aren ongizatea eta duintasuna nahi duenarentzat, *espazio publikoa* eta *memoria* bi kontzeptu politiko oker dira. Okerrak dira beren adarrek kalearen, plazen, buruen, kontakizunen eta historiaren ikuspuntu zapaltzaile bat konfiguratzeko dutelako. Ez da astakeria bat esatea *espazio publikoa* kontzeptu urbanistiko-politiko *kartzela* kontzeptuaren baliokidea dela. Alegia, ezin dela praktika askatzailek egin *kartzelaren* bidez, *zigorraren kulturaren* bidez jendarte duinik eraiki izan ezin den bezala. Eta berdin Estatutik egindako *memoriarekin*. Ezin da praktika askatzailek garatu *memoriaren* erabilera publikoaren bidez, *autoritarismoaren* praktika askatzailek ez dagoen bezala. Har ditzagun, beraz, ohar soil batzuk bi gaion inguruan.

Espazio publikoa

Lerro hauetan Manuel Delgadoren *El espacio público como ideología* (Catarata, 2011) hasi eta buka kopiatzea legokidake. Baina lerro batzuk hartu eta itzuliko ditut, atariko gisara. Hannah Arendt-en *Más allá de la filosofía* (Trotta, 2014) ere buruan daukat. Nahiz eta Delgadok, hain justu, Arendt egiten duen espazio publikoa kontzeptuaren sortzaile eta, horregatik, gogor kritikatzeko duen.

Delgadok dio *espazio publikoa* aipatzen dutenean, «urbanistek, arkitektoek eta diseinatzaileek, [...] eraikinen arteko hutsune bat ikusten dute[la] promotoreen eta autoritateen [...] helburuentzat modu egokian betetzeko». Izen artistiko-militar bat erabiltzen dute, gainera, urbanistek, arkitektoek eta diseinatzaileek: interbentzioa. Interbentzioa medikuek egiten dute gaixoari eri daukan atala erauzteko. Interbentzioa detektibeek eta poliziaen unitate ibiltariak

egiten dute kaleko normaltasuna berrezartzeko edo delitu-zantzuak dauden egoera bat argitzeko. Interbentzioa ogasunak egiten du merkatu-ekonomiak agintzen duenean. Espiek, epaileek, gobernuek, armadek egiten dituzte interbentzioak.

Eta urbanistek, arkitektoek eta diseinatzaileek ere hala interbenitzen dute: «Puntuaren arteko jarioaren ona berma dadin antolatzen dute eremu bat, gune txukun batek eraikin-negoioei edo eraikin ofizialei eman behar die zerbitzua, segurtasuna eta aurreikusteko gaitasuna garantizatzen».

Delgadok azaltzen du *espazio publikoaren* kontzeptua hiria planifikatzeko zutenek jarri zutela boladan. Filosofoek-eta sortu zuten, baina hirien logistika martxan jarri dutenek zabaldu dute. Hiriak berrantolatzeko interbentzioetarako kontzeptu bat zen: espekulazioarako, turismoarentzako, erakundeek eraikitzen zuten horri zilegitasuna emateko: «Lurraldearen eta ekoizpenaren ordenazio kapitalistan hitz egiten da *espazioari* buruz». Horregatik, ikuspegi eraldatzaile batetik, ezin dugu ahaztu «publikoa dena» — Koselleck-ek proposatu bezala — «neurri handi batean XVII. mendeko erlijioen arteko borroka handiak menderatu eta disolbatzeko sortu zela, alegia, errekontziliario eta kontsentsu eremu gisa, identitate eta interes kontrajarriak zituzten pertsonentzat».

Beraz, *espazio publikoaren* proiektua bera kontsentsuan sartzeko gai ez dena patologizatzen helburarekin sortu zen. Menderatzaileak egiten du araua. Menderatzaileak, *hiritarraren* entelekiaren kontzeptuaren bidez ezartzen ditu joko-arauak. Eta norbanako guztiak elementu neutral gisa azaltzen dira *espazioan*, denek aukera berdina balituzte

bezala: hiriko kultur programazioa baldintzatzeko adina aurrekontu duen garagardo-markaren buruak eta hirugarren solairuko auzokideak. Baina formalki denak berdinak baina errealki oso botere-gaitasun ezberdina dugun gizarteak dira gureak.

Memoria

Gizarte demokratiko batean Estatuak ez da memoriaz arduratzen. Gizarte demokratiko batean Estatuak (bere epaitegien, legeen, beso exekutiboen, lan sinbolikoaren bidez) katastrofeak eta injustiziak jasan dituztenak erreparatzen ditu. Adibidez, gerra zibil bat eta diktadura bat egon bada, jendeari —eta arbasoei— lapurtutakoa itzultzen zaie, edo kalte-ordaina jasotzen dute. Erreparazio materialak egiten dira, eta, beharrezkoa bada, aitortzazkoak ere bai.

Ez gara gizarte demokratikoetan bizi. Eta «memoriaz» egiten diren ariketa estatalak ere horren adierazgarri dira. Ez direnez kolpatutakoak materialki erreparatzen, erakunde publikoek ekitalditxoak egiten dizkiete, plakak jarri horma eta hilerrietan. Eta, are, beso exekutibo batzuek (Gogora Institutuak adibidez) ariketa totalitarioak egiten dituzte: errelato konpartituaren fantasiarekin jolasten dute. Komunitate politiko jakin bat komunitate unibertsal bihurtuz. Batzuen kontakizuna denona dela adieraziz.

Funtsean, «memoria» aldarrikatzen duenean Estatuak hiru eremu nahasten ditu interesatuki: historia (zientzia bat), kalea (iraganeko, gaurko eta biharko hamaika komunitatek partekatutako guneko fisiko bat) eta justizia (hamaika biktimekiko izan ez dena). Baina memoria beti da indibiduala edo kolektiboa, ez dago, eredu totalitario batean ez bada, memoria kolektiborik. Talde bakoitzak eduki beharko

lukeelako eskubidea, beharra eta askatasuna bere gisa gogoratzeko historia, bere interpretazio propioa egiteko, beste komunitate batzuekin talkan eta dialektikan. Ezin da errelato bat egin Rosa Luxemburg eta Carrero Blanco bateratuko dituenak.

1984 berriro

Zentzu horretan, interesgarria da George Orwell-en *1984* eleberrira itzultzea, gogoratzeko, «politika totalitarioaren ardatz ezinbestekoa» (Jean-Claude Micheak gogoratzen duen bezala *Orwell anarchiste tory* liburuan) «lehenaldiarekin tabula rasa» egiteko ahalegina dela. *1984* eleberrian Estatuaren helburua ez baita lehenaldia aldatzea, baizik eta desagerraraztea. Eta horretarako ariketa perfektua da *memoria*. Memoria eraldaketa etengabe dagoelako, baina ez historia bezala, froga gehiago eskuratuz lehenaldia hobeto ikertzen eta irakurtzen laguntzen diguna. Memoriak ez, memoriaren ariketek bizitzen segitzen uzten digute, baina errealitatetik gero eta urrutiago, mutazioz mutazio.

1984 eleberrian bezala, memoriaren hiztegi berrian afera ez da hitz berriak asmatzen direla. Afera ez da omenaldiak eta plakak jartzen direla. Afera da, hori eginda hamarnaka hitz, historiako ehunka egoera estaltzen direla. Memoria historia lurperatzeko makina bat dela.

Orwellek egindako satira horretan ez erortzeko bi bide klasiko berreskuratzeko lana dugu: kalea eta historia. %1aren zerbitzura dagoen munduko espazio publikoak eta memoriak irentsi aurretik.

+++